



MUGARIK GABE
Organización No Gubernamental de Cooperación
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible
Web : www.mugarikgabe.org

BESTELAKO KOOPERAZIOA POSIBLE AL DA? BERRIKUSPEN KRITIKOA



BESTELAKO KOOPERAZIOA POSIBLE AL DA? BERRIKUSPEN KRITIKOA.

“garapena herrien egiturazko eskubide eta aldarrikapenen aldeko borroka indartzeko tresna bezala ulertzea funtsezko premisa bat da” (“Herri indigenak, nazioarteko kooperazioa eta elkartasuna Guatemalan”. Henry Morales eta Máximo Bá Tiul. Tzuk Kim-Pop Mugimendua. 2009ko Iraila. Guatemala)

Agiri honen helburua batez ere gobernuz kanpoko esparruan garapenerako kooperazioa bezala ezagutzen denak azken hamarkadetan egin duen bidearen berrikuspen kritikoa egiteko gakoak eta elementu nagusiak aurkeztea da, bestelako kooperazioa posiblea eta premiazkoa denaren premisatik abiatuta beti ere. Horretarako, garapenerako kooperazioak konpromiso politiko eraldatzaile handiagoko lan ildoak garatu behar du, eta zentzu horretan funtsezkoa da mugimendu sozialek eraldaketa politiko, sozial, ekonomiko eta kulturaletan eragile politiko bezala izan behar duten protagonismoaren aldeko konpromisoa agertzea.

Horretarako, kontuan hartu behar dira gaur arteko inpaktuak eta indarrean dauden ereduak zeintzuk diren, bai eta kooperazioaren lana garatzen den nazioarteko testuingurua (globalizazioa) eta testuinguru honek duen eragina eta joera ere. Hausnarketa honen beste abiapuntua Iparraldeko eta Hegoaldeko jendarte zibilen eskutik praktikara eraman den garapenerako kooperazioa deitutakoak bizi izan dituen aldaketa handiak eta norabidetze berriak dira, bai eta –kontraesankorra ematen badu ere- lan egiteko orduan sortutako inertziak ere. Kooperazio lanaren berrikuspen kritikoa egiteko momentua iritsi da, herrien eta pertsonen (emakume eta gizonen) arteko desberdintasunekin, esplotazioarekin eta injustiziekin amaitu nahi bada, kooperazio lan horrek, ezkerretik, justuagoa den mundua eraikitzeko gehiago atzeratu ezin daitezkeen eraldaketa sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalen zerbitzurako eragile dimentsioa hartu behar du ezinbestean, kooperazioak helburu bezala lortu asmo duenaren eta helburu hori lortzeko edo erdiesteko egiten duenaren arteko koherentzia mantendu nahi bada.

Zorionez, berrikuspen behar esplizitu honek bere bidea egin du gero eta esparru zabalagoetan azken urte hauetan, nagusi diren ereduak gainetik egin ere. Horrela, paradigma eta eragiteko estrategia berriak mahai-gaineratzen dituzten mugimendu

berriak sortzen ari dira, kooperazioaren esparruko hainbat sektore euren lana berrikustera behartzen dituzten mugimenduak. Bide horretan indarra egiten duten gero eta planteamendu, azterketa eta hausnarketa berri gehiago agertzen ari dira. Agiri honetan berrikuspen gako hauek ordenatzeko (eta ez desordenatzeko) ahalegina egingo dugu eragiteko bide berriak proposatzearekin batera; dimentsio politiko batetik abiatuta, aipatutako beharrezko eraldaketa horiek bultzatzeko helburuarekin elkartasun kooperazioak bere lekua, espazioa eta denbora hartu ditzan. Agiri honek gaur artean mahai-gaineratu diren eta dagoeneko zenbait eragile sozial eta politikoen eztabaidetan -izan mugimendu sozialetan zein gobernuz kanpoko erakundeetan- agertzen hasi diren ideiak biltzen ditu nolabait, baina era berean, agiri honek Mugarik Gabe erakundearen jarrera hartze esplizitu eta konprometitua izan nahi du.

KONTUAN HARTU BEHARREKO GAKOAK.

Berrikuspen kritiko hau egiteko, balizko gako guztien ugaritasunean zehatzegiak izan beharrez, enuntziatuaren sinpletasunagatik eta esanahiaren zein edukiaren sakontasunagatik determinanteak ematen duten horiek azpimarratuko ditugu kooperazio eredu berri baten alde aurrera egiteko; dagoeneko eraldatzearen aldeko kooperazio solidarioa bezala izendatu dezakegun horren alde aurrera egiteko.

Azken kontzeptu honen inguruko argipen bat egiteko geldiene txiki bat egitea komeni da. Elkartasuna, kooperazioaren ikuspuntutik bederen, bere alderdi politikoenean ulertu beharra dago, eta beraz, laguntza, humanitarismoa eta mota horretako kontzeptuak gainditu behar ditu. Bizitza duin baterako eskubidetik abiatzen bagara, eta duintasuna pertsona definitzen duen ezaugarri bezala ulertzen badugu, orduan elkartasuna beste edozein pertsonak pairatzen dituen injustizia etikoen, politikoen, sozialen, ekonomikoen edo etnikoen aurrean sumintzeko eskubidea eta betebeharra dela esango dugu. Baina sumindura (elkartasuna) ezin daiteke mugatu sentimendu (afektibo) huts bat izatera, beste bi ezaugarri ere barne-bildu behar ditu: kognitiboa eta konatiboa. Egoera horien gaineko ezagutza sakona izatea eta egoera horien aurrean jarrera zehatz bat hartzea (egoera horien kausa sakonak desagertzera bideratutako ekimenak garatzearen jarrera baino ezin daitekeena izan). Arrazoi horregatik, "beste" pertsonaren lekuan jartzearen elkartasun printzipioan oinarritutako jendarte zibilen protagonismoa kooperazioaren ezaugarri bereizlea izatera itzuli behar da, egoera egokiak eta berdinen arteko ezagutza

artikulatu, eta identifikazio sentimenduak aktibatzen dituelako eta sistemaren behetik gorako benetako aldaketei bidea irekitzen dieten prozesuetan ekinbide horizontalak ahalbidetzen dituelako.

Hiru dira ildo estrategiko nagusiak zehazten dituzten gakoak:

- kooperazioaren eraginaren eta moduen berrikuspen autokritiko iraunkorra egitea, bere zentzurik zabalenean ulertuta: eragina, lan moldeak, inplikazioa, efektuak, sortzen dituen erlazioak.
- Kooperazioaren azterketa eta eduki politikoa berreskuratzea eta birdimentsionatzea. Eta horrek, besteak beste, desberdintasunaren egiturazko kausak identifikatzea eta kausa horiek eraldatzeko esku-hartzea eskatzen du. Eta,
- Aurrekoarekin kontsekuente izanik, benetako eraldaketa sozial, politiko, ekonomiko eta kulturala bilatzen duten prozesuetara bideratutako ekimenak sustatzea, bai eta esku-hartzen duten eragile politikoak indartzea ere, mugimendu sozialak baitira prozesu hauen benetako protagonista.

TESTUINGURU OROKORRA. EGOERA GLOBALA ETA PARTIKULARRA.

Agiri honetan ez dagokigu globalizazioaren analisi sakon eta zehatza egitea, batez ere bere alderdi ekonomikoei eta bere ondorio politiko eta sozialei dagokionean, baina bizi garen munduan determinanteenak ematen duten hainbat ezaugarritan laburbilduko dugu egoera orokor hau. Kapitalismoaren egungo fase honetan, globalizazioak, besteak beste, merkatuaren logika eta botere finantzarioen eskutik heltzen zaigun politikaren eta biztanleen bizi baldintzen dominazioa esan nahi du. Logika horrek guztia baldintzatzen du, eta eskubide indibidual eta kolektibo guztien gauzatzean atzeraldi garrantzitsua ekarri du; indibidualismoaren berrindartzearekin batera ematen ari den munduko gero eta biztanle gehiagoren bizitzaren prekarizazioa eta kontsumoaren etika anestesiatzaile aldarrikatua hain zuzen ere –normalean pertsonen arteko elkartasunaren eta parte hartzearen, zein bizitzaren gaineko ikuspegi komun eta kolektiboaren gutxitzea ekarri duena-.

Beste alde batetik, batez ere iparraldeko herrialdeak kolpatzen dituen baina era larri batean hegoaldekoetan ere eragina duen egungo krisialdi ekonomikoaren (finantzarioaren) ondorioz, botere ekonomiko menderatzaileak indartzen ari dira, botere politikoa gero eta gehiago azpiratuz (botere ekonomikoaren transmisio-uhala hutsa bilakatuz eta euren pribilegioak mantentzeko inposatzen dituzten neurrien kudeatzaile bihurtuz) biztanleen gehiengoaren eskubide galera gero eta handiagoa eraginez. Guzti honekin batera, herrialdeen eta pertsonen arteko aberastasunaren banaketa gero eta desorekatuagoa ematen ari da azpigarapen egoeran daudela esan ohi den –pobrezia, miseria, justizia eza eta guztiontzako eskubide berdinak bermatuko dituen bizimodurako aukera gabezia bizi diren- herrialde ahulenei egoera horretatik ateratzeko bidea behin eta berriro oztopatuz.

Kooperazioa globalizazioaren testuinguru orokor honetan kokatzen da, hori da bere eragite esparrua, eta beraz, onartu edo ez, testuinguruak kooperazioaren ekinbideak baldintzatzen ditu, egoera hau mantentzearen edo eraldatzearen alde egitera behartuz. Hau da barneratu behar dugun lehenengo ikasgaia.

Egiten ari garen berrikuspen honetan konprometitutako kooperazioak Latinoamerikan egin behar duen ekarpenak interes handia duela kontuan hartuta, behar beharrezkoa da kontinente honetako azken urte hauetako testuinguru orokorrari buruzko ezaugarri labur batzuk aipatzea.

Alde batetik hainbat herrialdeetan ezkerreko eredu politikoak hedatu dira, eta eredu hauek sakon eta zehatz aztertzeari heldu gabe, agerikoa da testuingurua nabarmen aldatu dela eta justuagoak diren eredu bidezkoagoetarako eraldaketa aukerak handitu egin direla. Beste alde batetik, eta erantzun moduan, herrialde batzuetan ezkerreko eredu hauen joeraren aurkakoak diren beste eredu inboluzionista eta neoliberal batzuk indartu egin dira. Aldi berean, hainbat ezkerreko mugimendu sozial indar politiko ezinbesteko bilakatu dira euren herrialdeetan; indigenen, nekazarien, langabeen eta feministen mugimendua azken garaian lortzen ari den eragin maila gero eta determinanteagoa horren adierazle garbia da. Mugimendu guzti hauen estrategia eta antolaketa eredu deszentralizatuen, zein oinarri sozial eta agenda politikoen aniztasuna oso handia da, eta aniztasun hori da aldaketa sozial eta politikoen motor nagusia. Testuinguru honetan, nola ez, oso presente daude iparraldeko herrialdeak; hala Estatu Batuak nola Europakoak. Bloke bakoitzak bere berezitasunak ditu, baina biek, euren

interesen defentsan, lehenago aipatutako ezkerreko eredu horien aurka jotzen dute eredu neoliberalagoak indartuz. Eta interesa argia da; Latinoamerika lehengai merkeen hornitzaile eta iparraldeko herrialdean manufakturatutako produktuen merkatu erreza izaten jarraitzea, beti ere garapen eredu menderatzailearen mesedetan, nola bestela. Testuinguru honetan kokatzen dira Honduraseko estatu-kolpea bezalako ekimenak, Venezuela, Bolivia edo Ekuadorren gertatutako saiakerak, eta merkataritza askerako akordioen bitartez eragiten diren presio politiko eta ekonomiko guztiak, izan akordio hauek AEBek Erdialdeko Amerikako herrialdeekin sinatutakoak (Peru, Txile...), edota Europak Erdialdeko Amerikako zein kontinenteko beste herrialdeekin negoziatutako Asoziazio Akordioak (AdA), hauek ere merkataritza askerako tratatuen eskema berdina jarraitzen baitute lehenengoen onura argia bilatuz eta bigarrenengoekiko asimetria ekonomiko itzelak sortuz. Tratatu hauen ondorioz, herrialde sinatzaile amerikarretan pobrezia handitu egiten ari da, herrialde garatuekiko mendekotasun ekonomikoa sortu, subiranotasuna galdu, baliabide naturalen ustiaketa etengabea pairatu eta eskubideen galera ematen ari da.

Ageriko denez, egoera guzti hauen ondorioek eragina dute kooperazioaren lan testuinguruan, ezin daiteke esan kooperazio lana eragin horietatik aparte dagoenik, ez orain ez eta lehenago ere. Horrela, beste adierazpen askoren artetik, adibide bezala hartu dezakegu Europak ezarritako lerroei buruz CAD Sareak (Centro América para el Dialogo-Erdialdeko Amerika Elkarrizketarako) egindako salaketa. Bertan aipatzen da kooperazioa batez ere merkataritza eta finantza transakzioen baldintzak hobetzera bideratzen ari dela, gero eta gehiago urrunduz duela zenbait urte justizia, bakea, ekitatea eta demokrazia helburu zituen joera humanista eta demokratikotik. Era berean FONGIk (Foro de Organizaciones No Gubernamentales Internacionales en Guatemala/ Guatemalako Gobernu Kanpoko Erakundearen Foroak) adierazi du lehentasuna ematen ari zaiola "kooperazio agentzien joera jakin bati; epe luzeko estrategien inguruko hausnarketei leku egin gabe subjektu sozialen indartzea bilatzen ez duten epe laburreko prozesuak babesteko joerari (...) kooperazioa egiturazko eraldaketa prozesuetara bideratu beharrean".

KOOPERAZIOA BERE TESTUINGURUAN.

Lehenago azaldutako guztiak harreman zuzena du kooperazioari ere dagokion testuinguru orokorrarekin, horrela, bi kooperazio nagusi bereizten dira; kooperazio aldeaniztuna (nazioarteko erakundeeetako eta nazioarteko erakundeen artean egiten dena) eta alde bikoia (herrialdeen artekoa). Azaldutako guztia David Llistarrek "antikooperazioa" bezala izendatzen duen kontzeptuan islatzen da; hau da, iparraldean sortu eta hegoaldean eragin negatibo bat duten ekimen guztiak dira antikooperazioa, berdin du ekimen horiek garatzen diren modua eta esparrua, edo sorburua eta helburua zeintzuk diren ekimen horien erro nagusia iparraldeko herrialdeen hazkunde ekonomiko segurua baterako interesa bada. Antikooperazio honek hainbat esparrutan du eragina; finantza esparruan, merkataritzakoan, diplomatikoan, ingurugirokoan, militarrean, teknologikoan eta nola ez, elkartasun kooperazioaren esparruan; ondorio negatibo horien guztien batuketara –agerikoa denez- elkartasun kooperazioak eta kooperazioa izendatzen den esparru guztiak sortzen ditzakeen ondorio positiboaren batuketara baino handiagoa delako.

Hori dela eta, funtsezkoa da testuinguru honek gobernu kanpoko kooperazioa deitutako horrengan eragina duela ulertzea, hegoaldeko eta iparraldeko jendarte zibiletako eragileen artean egiten den kooperazioarengan hain zuzen ere. Altxa, kooperazio hori neurri handi batean arau eta jarraibide batzuen menpe dago, finantzazio publikoaren eta, neurri batean edo bestean, definitutako eskema hau –nork bere esparrutik- konpartitzen duten instituzio politikoaren bestelako baldintzapenen menpe ere. Hala ere, azaldutako honek ez du zeharka aditzera eman nahi gobernu kanpoko kooperazioa testuinguru orokor honen guztiz menpekoa denik. Kooperazioak testuinguru kontuan hartu behar du, eta zenbait kasu konkretutan testuinguru horrek hainbat ekinbide garrantzitsu ere baldintzatzen dituela jakin. Baina era berean, badago eragiteko behar besteko marjina, eta beraz, Garapenerako Kooperazioaren Gobernu Kanpoko Erakundeeetako badute behar besteko aukera eta ardura testuinguru honetan eragiteko: eta bi aukera dituzte; testuinguruaren funtsarekin ados egon eta sistema batere aldatu gabe bere eragin zitalenak zuzentzera bideratzeko ahalegina egitea, edo sistemaren errotikako eraldaketa bilatzea, bestela, sistemak gero eta handiagoak diren desberdintasun egoerak sortzen jarraituko baitu. Eta azkenengo hau, eragiteko marjina kontuan hartuta egin behar dugu, GGKE bezala egitura honetan dagokigun lekua

aintzat hartuta eta zehaztutako helburua erdiesteko bidean aurrera egitea ahalbidetuko diguten politikak eta estrategiak definitzeko lanari helduta.

Gobernuz kanpoko kooperazioaren lan-eremuko ekimenen eta jarrera estrategikoen egungo egoera kanpo eragin hauen eta gobernuz kanpoko kooperazioaren barne-posizionamenduen ondorio da.

Garapenerako kooperazioa batez ere asistentziazko izaera nabarmen batekin sortu zela esan badezakegu ere; urte batzuk beranduago, testuinguru eta eraldatze abagune politiko ezberdinekin konpromiso jarrera handiagoa hartu zuen lan-ildo garrantzitsu bat sortu zen. Hala ere, eta garai hurbilagoari erreparatuta, ematen du konpromiso politikoko ezagutza handiagoa pilatu den arren, berriz ere asistentziazko izaera hori gailentzen ari dela, itxuraz despolitizatua. Zentzu horretan, azken urte hauetan kooperazioaren zati handi batek bere eredua egun nagusi den sistema politiko, sozial eta ekonomikoaren beharretara moldatu du, bere tresna bilakatzeraino. Horrela, egiaztatu dezakegu, gauza teknikoen eta araudien konplexutasuna gailendu dela, prozesu burokratiko-administratiboek indarra hartu dutela (bere garaian eragin handiagoa izan ahal izateko erakundeen erronka eta eskaera bat izan baziren ere, maila handi baten politikoari gailendu zaizkiola esan dezakegu), adostasun blokeatzailea nagusitu dela, eta eraginkortasunaren diskurtsoa erakundeen identitatea hertsatzen eta ia itotzen duen elementu bezala kokatu dela. Era berean, eta zentzu berdinean, instituzioekiko kontsultarako "elkarrizketa" iraunkorra, jarduera politikoa moteltzen duen elementu gisa berrikusi beharko litzateke, eta beste kontzeptu eta lan-ildo sektorial batzuk ere, hala nola gobernantzarena eta gobernagarritasunarena, Milurtekoaren Garapen Helburuak, kohesio soziala, Erantzukizun Sozial Korporatiboa eta beste asko eraldaketaren egiazko helburuetatik etengabe urruntzen gaituzten elementu bezala.

Aurrekoaren ondorioz hegoaldeko subjektu politikoetatik eta euren prozesuetako eskaera eta aldarrikapenetatik gero eta gehiago urrunduko gara, eta "onuradunen" bizi baldintzak "hobetzer" mugatuko, onuradun horiei subjektu politikoaren izaera kenduz eta laguntza jasotzen duten objektu pasibo bilakatuz. Zentzu horretan nabarmentzekoak dira Andres Cabanas-en adierazpenak kooperazioaren interesen inposizioak, neurri handi batean menderakuntza-eskema bat elikatzen duela esatean. Era berean, Cabanesez mahai-gaineratzen du kooperazioak, tokiko eragileekin *elkar-*

eragina bilatu beharrean, *esku hartzen* duela; *biztanle onuradunentzat* lan egiten duela eta ez subjektu sozial eta politikoekin; kooperazioak *kanpo-eragilearen jarrera* hartzen duela eta ez beste parte bat gehiago izatearena; gainera, erakunde sozialen gaitasunarekiko mesfidantza adierazten du (batez ere baliabideen kudeaketa eta kontrolari dagokionean), autokritika, ebaluazioa eta lanaren sistematizazioa saihesten ditu; *ekimenak eta emaitzak* gauzatzea lehenesten du prozesuak garatzearen aldean, eta –gauzapenaren arabera- antolaketa eredu artifizialak inposatzen dituela.

Azken honen ondorioz mugimendu sozial asko gobernuzkanpokoerakundetu egin dira, bere zentzurik txarrean. Azken batean Gobernu kanpoko kooperazioa, nagusi den ereduaren eragin latzenak pairatzen dituztenekin konpromiso irmoa izan beharko lukeen kooperazioa, “kooperazio enpresa” bilakatzen da, eredu hori irauli ez ezik, neurri handi batean eredu elikatzen duen kooperazioa bilakatuz.

Kooperazioaren testuinguruan aztertu beharreko azken elementuak, gure lurralde-espazio espezifikoarekin lotuta dagoenak, euskal kooperazioa eta bere egoera –modu labor batean bada ere- aztertzea behartzen gaitu. Egia da burbuila bezala izendatu dezakegun garai berezia bizi izan dugula. Aurretik azaldutako politika eta testuinguru ezberdinak kanpoan gailentzen ziren bitartean, hemen jarrera ezberdinak mantentzen jakin izan dugu; konpromiso handiagokoak eta eragite politiko eta sozialerako joera garrantzitsuagoa zutenak, hala kooperazioaren barne munduarekiko –erakundeekiko-, nola instituzio eta oro har jendartearekiko. Hala ere, oso presente izan behar dugu hau guzti hau aldatzen hasia dela edo aurki aldatzen hasi daitekeela dagoeneko agerikoa den euskal instituzioen –eta gobernuz kanpoko hainbat erakunderen-kooperazioari buruzko ikuspegiaren birkokapen nabarmenaren ondorioz. Sumatzen da, krisi ekonomikoa bezalako elementuak ahotan hartuta baina aipatu joera horien ondorioz batez ere, kooperazioarekiko jarrera aldatu egiten ari dela; kooperaziora bideratutako diru-iturrien berregokipena (murrizketak), eskakizun arauemaielen handitze nabarmena, profesionalizazio handiagoa bere zentzurik negatiboenean, ezaugarri politikoaren galera eta eragile sozialen birkokapena...; eta hau guzti hau oso presente izan behar dugu berrikuspen autokritikoa egiterako orduan eta eraldaketarako kooperazioa erdiesteko beharrezko ditugun estrategia berriak formulatzeko garaian.

ERALDAKETARAKO KOOPERAZIOA.

Agiri honetan orain arte azaldutakoak egoera atsekabegarria islatzen duela pentsa dezake askok, baina inork ere ez zuen esan esparru politiko-sozial hau –beste asko bezala- lantzeko erraza zenik. Ezkerreko jarreratik abiatuta, behar beharrezkoa da egungo eta etorkizuneko egoera argitasunez ikusteko ahalegina egitea, agertoki horien azterketa iraunkorrak gure estrategiak hobeto definitzen eta –hauek ezarritakoan- gure lanarekin eraginkorragoak izaten lagunduko digulako. Agiri honen hasieran azaltzen zen bezala, azken garai honetan gero eta indar handiagoz pizten ari dira han eta hemen (Europar eta Amerikan) paradigma berriak islatzen dituzten azterketa eta hausnarketak, aukera eta bide berriak irekitzen dituztenak. Zorionez kooperazioa ez dago bide honetan bakarrik, eta hegoaldearekiko zein injustizia eta desberdintasuna sortzen dituzten egiturazko kausen eraldaketarekiko konpromisoa gero eta eragile gehiagok hartzen dute. Latinoamerikan positiboan planteatutako prozesu berriak abiarazten ari dira, eta han eta hemen kooperazioaren berrikuspen beharrezkoa abiatu da dagoeneko. Bi elementu hauek lehenago azaldutako agertoki iluna apur bat argitzen dute. Kritikarekin batera, gero eta konpromiso handiagoa hartzen ari da indarrean diren epe luzeko prozesuekin, eskaera praktikoei erantzuten zaien dinamiketan ere, baldin eta eskaera hauek epe luzeko prozesuetan kokatzen badira eta prozesuetan konprometitutako eragileek proposatuak badira.

Testuinguru honetan, adierazi beharra dago ere GGKEak injustizia eta desberdintasun egoera honen arduradunak ez badira ere, zeregin garrantzitsua dutela beste eragile sozial askorekin batera, ardura bat. Aukerak azken finean, argi daude: egungo ereduarekin jarraitzea -horrek esan nahi duen guztiarekin-, edo hemengo eta hango eraldaketa prozesu berriekin konpromiso jarrera bat hartzea.

Ingurumaria honetan -eta agerikoa denez, bigarren aukeraren alde eginda- eraldaketarako kooperazio egoki baterako eragite-estrategiak definitzeko orduan jarduera sorta konkretu bat oso aintzat hartu beharra dago: Andrés Cabanas-ek bere hainbat idazkitan mahai-gaineratutako erronkak hain zuzen ere, jarraian, hauek osatzeko eta eduki handiagoz hornitzeko ahalegina egin ondoren, zerrendatzen ditugunak.

1.- Lorpenen eta eraginaren hausnarketa autokritikoa.

Antikooperazioaren kontzeptua ahotan hartu dugunean aipatu dugu iparraldeko eredu menderatzaileak hegoaldean sortzen dituen injerentzia negatiboak kooperazioak sor ditzakeen eragin positiboak baino handiagoak direla. Horri gehitu behar zaio, aipatu kritika horretatik abiatuta hain zuzen ere, oso kasu gutxitan lortzen duela gobernuz kanpoko kooperazioak munduko pertsonen gehiengoak pairatzen dituen bizi baldintzen aldaketan eragitea (esplotazioa, eskubide urraketa, muturreko pobrezia, sistema patriarkala, eta abar). Nola ez, kasu askotan bizi baldintza horietako batzuk ez besterik arintzera baino ez bagara iristen, behar beharrezkoa da gure jardueren autokritika eta ebaluaziorako bidea irekita izatea. Helburua argia da; jarduera horiek testuinguruaren ikuspegi zabal eta estrategikoagoen, eta prozesu desberdinekiko konpromisoen bitartez hobetzea.

2.- Testuinguruaren azterketa iraunkorra.

Kooperazioak bilatzen dituen helburuen ingurumarian sor daitezkeen eragin negatiboak buruzko aipamen ugari egin ditugu dagoeneko, eta behar beharrezkoa da eragin horien azterketa egitearen garrantzia azpimarratzea abiarazten ditugun jarduerak helburuetatik aparte edo hauen mendeko gera ez daitezen. Era berean, borroka ziklo berrien azterketa egin beharra dago, mugimendu sozialek egiten dituzten proposamen berriena eta abian diren aldaketa sakoneko prozesu hasiberrien garapenarena. Eraldaketarako kooperazioak subjektu politiko berriak indartzearen aldeko hautua egin behar du, batez ere Amerikako kontinenteko testuinguruan; mugimendu feminista, nekazariena, indigenena... Hauek dira hain zuzen ere paradigma eta eredu berriak garatzen ari dituzten subjektuak; errealitatea ulertu eta antolatzeko jendarte jakin batek duen moduari lotutako paradigma eta ereduak, "ondo bizitzearena" kasu. Feminismoak sustatutako "bizitzaren zaintza"-n oinarritutako ekonomiak "ondo-bizitzearekin" eta "deshazkundearen" paradigmarekin bat egiten du, zeinak, iparraldearen kasuan, nagusi den sistema patriarkal eta kapitalistaren erroa kolpatzen duen hegoaldeko planteatzen diren beste sistema horiekin modu batean edo bestean lotuz.

3.- Egiturazko eraldaketak eta egungo botere harremanen aldaketak helburu dituzten jarduera eta prozesuen aldeko hautua.

Asko sakondu dugu orain arte erronka honetan, baina garrantzitsua da berriz ere azpimarratzea konpromiso hau gabe kooperazioak ezingo diola nagusi den ereduaren eraldaketari ekarpenik egin eta eredia bera indarrean mantentzeko beste engranaje bat besterik ez dela izango, politika ekonomikoen ondorioen aringarri hutsa. Askotan, espazio jakin batean indarrean diren egiturazko kausak eta menderakuntza harremanak kontuan hartzen ez direnean, jarduerak ez dituzte sakoneko aldaketak eragiten eta funtsezko aldaketa gabeziaren ondorio den errealitate horren kontra talka egiten dute etengabe; pobrezia, aberastasunaren banaketa desorekatua, eskubideen urraketa eta sistemaren indarketa. Kontuan hartu beharra dago itxuraz ondorio positiboak izan dituzten zenbait kasutan egiturazko kausa horiek landu ez izanak "garapen irla txikien" eraketa deitu dezakeguna baino ez duela ekarriko, eta hauek beti egongo direla testuinguru orokorraren aldaketen mende, edo beharbada, kasu askotan, "laguntza" agortzearen mende.

4.- Eredu ekonomiko eta politiko menderatzailea zalantzan jartzea.

Askotan, eta kasurik onenean, kooperazioa sistema ekonomiko eta politikotik kanpo balego bezala kokatzen da, sistema globaletik kanpo eta kooperazio garatzen den herrialdeko sistematik kanpo balego bezala. Era berean, gero eta sarriago lan egiten da okerreko eragileekin, prozesuen egiazko eragile politikoak izan beharko liratekeenak (mugimendu sozialak alegia) ordezkatzan dituzten beste eragile batzuekin.

Sistema ekonomiko eta politiko menderatzaileek kooperazio prozesuei ezartzen dizkieten baldintzapenen eta inplikazioen azterketen falta nabarmen bat dago. Sistema hauek eredia zalantzan jartzen duten mugimendu eta erakundeen parte hartzea desagerrarazten eta jendartearen beste parte anestesiatzen duten mekanismo ilunak eta ez oso demokratikoak erabiltzen dituzte, bai eta zapaltzaileagoak diren beste batzuk ere. Modu honetan, gainera, maila politiko hauetatik sistema ekonomikoa eta bere garapenerako beharrezkoa duen legeen kudeaketa legitimatzen da. Kasu gehienetan, enpresa transnazionalak herrialde jakin bateko agenda ekonomikoa zehazteaz gainera, jendarte ahulduekiko eta euren irizpideen mendekoak diren estatuekiko agenda politikoa ere zehazten dute. Baliabide naturalak ustiatu eta

espoliatzeaz gainera, besteak beste desregularizazioak, sektoreen pribatizazioa, eredu ekonomikoaren lehenestea, legedien erabilpena eta merkatuen irekiera sustatzen dituzte, eskubide indibidual eta kolektiboen bortxaketa eta errespetu eza sakonduz (eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, politikoak eta zibilak). Enpresa transnazionalak herrien eta pertsonen etorkizuna erabakitzen duten kontrolik gabeko eragile bilakatzen dira, instantzia politiko eta sozialen batere kontrolik gabeak.

5.- Kooperazioa politizatzea.

Aurreko erronka guztiak elkar lotuta daudela ulertuta, azken hau da nolabait eraldaketarako kooperazioa garatzeko funtsezkoa duguna. Boaventura de Sousa Santos-ek azaltzen zuen bezala, *zientzia sozialen esparruan politizatzeak* -eta gehitu diezaiokegu: kooperazioaren esparruan politizatzeak-, *“botere harremanak identifikatu eta autoritate partekatuko harremanetara eraldatzeko modu praktikoak irudikatzen behartzen gaitu (...) praktika sozialaren birpolitizazio global baten testuinguruan”*.

Era berean, gure burua eragile bezala hartu behar dugula esan nahi du; eragiten den testuinguru espezifiko eta globaletatik kanpo egon ezin daitekeen eragile bezala. Agerian geratu da kooperazioak modu batean edo bestean eragiten duela, eta beraz, kontzientzia handiagoarekin eta horretara bideratutako politika estrategikoekin egin behar dugula aurrera, justuagoak eta bidezkoagoak diren jendarteetarako eraldaketa aldarrikatzen duten errotikako aldaketen subjektu aktiboak diren pertsona guztiak errespetatuz eta indartuz.

ZIRKULUA ITXIZ.

Zerrendatutako erronka hauek ezin dira asmo onen nahitakotasun huts batean gelditu, erronka hauei heldu eta bidea egitea dagokigu. Eta bide horri ezin heldu antolaketan eta lan-moldeetan aldaketa sakona eman gabe, beharrezkoa den estrategia eta taktiken zehaztapen berria eman gabe, kontzientzia politikoa eratu gabe, antolaketa-independentzia mantendu gabe eta autogestio ekonomikorik gabe. Era berean, elkarrizketa politikoa garatu behar da gertuko eragileekin, hegoaldeko zein iparraldeko mugimendu sozialekiko harreman horizontalak indartu behar dira egoera globalaren eta testuinguruaren ikuspegia izanik, eragite politiko eta sozialetik eragin behar da,

antolaketa, mobilizazio eta parte-hartze gaitasunak indartuz, eta nola ez, guztiontzako eskubideak errespetatu eta hauen ezarpenaren aldarrikapena gure eginez. Lan handia inondik ere, baina aldi berean erakargarria baldin eta kooperazioak, justuagoa, bidezkoagoa eta egiazki demokratikoa den beste sistema baten aldeko egiturazko aldaketak sustatzen eta islatzen jarraitu nahi badu (kooperazioari dagokion esparruan behintzat).

Mugarik Gabe.